

**2014ko urriaren 29ko OHIKO OSOKO
BILKURAREN AKTA**

**DEIALDIA: LEHENA
HASIERA ORDUA: 20.05
BUKAERA ORDUA: 20.20**

Bertaratutakoak:

- 1.- Jesus Maria Fullaondo Alzibar.
- 2.- Leixuri Arrizabalaga Arruza.
- 3.- Vanesa Alvarez Zorrilla.
- 4.- Jon Ugutz Rotaetxe Arrizabalaga.
- 5.- Unai Arrizabalaga Urrutia.
- 6- Unai Arruza Elorduy.
- 7.-. Naiara Beldarrain Fullaondo.

Idazkaria: Iker Jaka Arratibel

Ez dira etorri baina abisua jaso dute alkateak eta idazkariak bere alderdikideen partetik:

- Maite Lekanda Bilbao.
- Mikel Larrazabal Zurbanobeaskoetxea.

1.- Arteko akteen onarpena.

2014ko irailaren 24ko ohiko osoko bilkuraren akta bertaratuek aho batez onartu dute.

2.- Dekretuak.

2014/148	15/09/2014	V.A.Z. andreari irailaren 27an bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/149	15/09/2014	J.S.U. jaunari urriaren 11an bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/150	17/09/2014	JL.O.I. jaunari irailaren 18an bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/151	19/09/2014	K. A. L.ri lur itxiketa lanak egiteko lizentzia emoteko.

2014/152	19/09/2014	A.B.S.ri leihoen baoak haunditzeko lizentzia emoteko.
2014/153	19/09/2014	K. A. L.ri partzelara sartzeko 2 ate jartzeko lizentzia emoteko.
2014/154	19/09/2014	M.M.Z. andreari, irailak 19an afari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emonaz
2014/155	19/09/2014	Y.B.V. andreari urriaren 18an bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/156	19/09/2014	L.R.G. andreari irailaren 21ean bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/157	25/09/2014	D.C.G. jaunari, irailak 27an afari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emonaz
2014/158	26/09/2014	M.B.S.E-ri Sertutxa baserriaren banaketa horizontalaren eskaerari ezezkoa emoteko dekretua
2014/159	26/09/2014	N.H. anderearia eta GEIGERI frontoia erabiltzeko baimena ematen.
2014/160	26/09/2014	Hurrengoko ordainketak onartzen dira.
2014/161	30/09/2014	N.H. andereari Geigeren izenean jarduten duena gaztetxoko erabiltzeko baimena
2014/162	01/10/2014	R. V. E. C.ri, Lubarrietaondo urbanizazioan, saloi eta bainuaren behearen aldaketa lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/163	02/10/2014	S.M.M. andreari urriaren 17an bazkari eta afari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/164	06/10/2014	J.I.E.A jauna Bideen Sergutasunaren aurkako delitu baten zigortzaile espedientearen instruktore izendatzen duen dekretua.
2014/165	06/10/2014	J.J.M.Z.ri urriaren 25ean bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/166	06/10/2014	L.U.A.ri azaroaren 2an bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/167	06/10/2014	J.C.V.B.ri urriaren 11an afari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/168	07/10/2014	Futbol zelaiaren mantenimendu lanen kontratazioaren sailkapena.
2014/169	08/10/2014	Futbol zelaiaren mantenimendu lanen kontratazioa adjudikatzeko.
2014/170	09/10/2014	Pandero ikastaroaren zerbitzu kontratua I.E.B. andereari esleitzeko dekretua
2014/171	10/10/2014	Baimenik gabeko instalakuntza legeztatzeko espediente hasiera dekretua
2014/172	13/10/2014	L. A. A.ri urriaren 24an, egun guztian, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/173	13/10/2014	A. E. L.ri urriaren 19an bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/174	14/10/2014	J. E.ri biltegi baten "lur bilketa" lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/175	14/10/2014	Gatikako Udalaren aseguru lizitazioaren esleipen dekretua.

Ez dute ezer esateko. Jakitun geratu dira.

3.- 22/2014, 14/2014 eta 209/2014 Gizarte Larrialdetarako Laguntzak .

Aho batez onartu dira.

4.-Eskaerak eta Galderak.

Ugutzek goizean gertatu den pasadizo bat komentatzen dau. Goizean aparkalekuan errieta bat egon da umeak eskolara eramateko momentuan guraso batzuen artean zeren eta kotxe bat haur bat harrapatzeko zorian egon baita. Ugutzek ustez aparkalekua arazoa bihurtu da zeren eta gurasoak arin ibiltzen dira eremu horretatik ,presaka askotan eta ez da erraza umeak kontrolatzea eta beti egoten da arriskua. Sopelako Ander Deuna ikastolan aspaldi gertatu zen ezbehar bat ere aipatzen du adibide gisa eta irtenbideren bat bilatu beharko zela ere iradokitzen du nahiz eta jakinik proposamen ezberdinak egongo direla eta irtenbide bat lortzea ez dela izango erraza.

Unai Arruzak dio Laukizen arazo berdiñe dekiela eta orain hasi dire munizipalagaz. Mungian ere munizipalagaz ematen dabe pasoak. Unai Arruzak dio hoberena zaintzale bat ipintea dela.

Leixurik galdetzen dau ea begiralerik al dagoen.

Unai Arruzak erantzuten deutso ardura egoten dela baina eskola aurrean geratzen dala eta ez dala aparkalekura joaten.

Alkateak esaten dau soluzio onena pertsona bat ipintzea dela baina zelan lotu pertsona bat bertan ipintea eta noren kargu hori da erabaki behar dan.

Unaiek erantzuten deutso minutu batzuetako asuntua izango dala egunero eta hoberena izango dala minutu horietan pertsona batek kotxeak pasetan ez lagatea.

Ondoren, Vanesak esaten dau Alesa empresatik usain txarra dariola azken eguneetan eta honen arrazoa zein izan daitekeen galdetzen du.

Alkateak erantzuten deutso aztertu egingo dabela.

Era berean, Vanesak zaratan inguruan bizilagun batek eginiko eskaeren inguruan galdetzen dau.

Alkateak erantzuten deutso euregaz batzartu zirela ekainean eta uztaillean eskatu zitzaizkion Alesari licencia de apertura emoteko exigitzen diren dokumentuak aurkeztu ditzala.

Naiarak galdetzen dau ea agiriak aurkeztu dituen Alesak eta ez badau epean aurkezten ea zer egingo duen udalak.

Alkateak erantzuten deutso epea pasaten badela eta agiriak ez badituela aurkezten Hirigintza Legalidadea babesteko beharrezkoak diren neurriak hartzea aztertuko duela udalak.

Eta aztergai gehiago ez dagoelarik, 20.20an amaitu egin da osoko bilkura hau.